



212. zenbakia

AZAROA 2021 •

pulunpe



Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta eta Ultzamako aldizkaria

ARGITARATZAILEA AMETZA KULTUR ELKARTEA

PULUNPE SAREA

Euskara Zerbitzua, Gurutze, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Irantzu, Virginia, Josu, Arantxa, Maika, Itziar, Facebooken parte hartzen duzuenak, banatzaileak, etab... Barka lezaiguzue, aipatu ez zaituztegunok.

EMAILA

pulunpe@gmail.com

ZENBAKI HONETAKO KOLABORATZAILEAK

Sareko taldekideez gain, Txurdan, Lurra eta Patxi Irurzun.

KOORDINATZAILEAK

Garazi Zabaleta eta Itziar Perez

TIRADA

1.700 ale

INPRIMATEGIA

Gertu

MAKETAZIOA

Zas Komunikazioa

AZALEKO ARGAZKIA

Azkenean, bueltatu dira eskualdeko pestak! Lehenak, Lizasokoak, urri bukaeran

LEGE GORDAILUA

NA 721/93

Inprimategira azaroaren 8an bidalia



IDAZKUNA KUTXAREN TAPAPEAN

“ Badaezpadako
mundu honetan,
beirazko puxtarriak zarete
zu eta zure edozein hipotesi.

Puxtarriak, pirritan
beste puxtarriren batekin
talka egin arte,
oztopo bat topatu,
zulora jausi,
edo apurtu arte.

Beldurrik ez:
itxaropena zain da
kutxa barnean,
errauts artean. ”

MIREN AGUR
MEABE
nola gorde
errautsa
kolkoan



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



Gripea

Zein dira gripearen aurkako txertoaren onurak?

Sukarra, arnasteko arazoak eta min muskularrak eragiten dituen gaixotasun birikoa da gripea. Arina izaten da normalki, baina zenbait pertsonarengan arazo larriagoak eragin ditzake, baita heriotza ere.

Gripearen aurkako txertaketak urtero 200 heriotza inguru saihesten ditu Nafarroan. Txertatzeko hainbat arrazoi daude, baina nagusia norbera eta ingurukoak babesteko modu onena dela da. Birusa aldatzen doanez, urtero txertatu beharra dago.

Berriki atera den ikerketa batek adierazi duenez, Covid-19 duten gaixoen heriotza tasa bikoiztu egiten da gripearen birusarekin ere kutsatuta daudenean.

Gaixotasuna garatzeko gaitasunik ez duten eta laborategian sortu diren birusaren zatiak jasotzen ditu txertoak. Hori dela eta, herritar guztiek jaso dezakete txertoa,

baita immunokonprometituek, haurdunek, bularra ematen ari diren emakumeek, adineko jendeak eta sei hilabete baino gehiagoko haurrek ere.

Gaixotasun kronikoak dituzten pertsonen prebentziorako erreminta garrantzitsua da gripearen aurkako txertaketa. Kardiopatiak, biriketako gaixotasun kronikoak edo diabetesa duten pertsonak arazo larriagoak izatera ez iristearekin lotu da txertaketa, eta haurdunaldian emakumeak eta erditzearen ondoren horien haurrak babesten ere laguntzen du.

60 urtetik gorako pertsonak ere txertatzea gomendatzen zaie,

“ **Herritar guztiek har dezakete gripearen aurkako txertoa** ”

eta baita hegazti-eta txerri-ustiapenetan lan egiten dutenei eta langile soziosanitarioei ere.

Osasun Etxetik txertatzera animatu nahi zaituztegu. Prebentzioa sendagaia baino hobea delako.



**Itziar Berasain
Orzuri Beldarrain**





Eskualdea, energia berriztagarriko trantsizioan

Gure eskualdeko hainbat herritan udalak energia berriztagarri pasatzeko hautua egin du. Azkenekoak, Odietakoa eta Anuekoa izan dira. Odietan Som Energiarekin kontratatu dute argindarra, kooperatiba bat delako eta izaera soziala duelako. Anuen, berriz, Aldro Energía enpresarekin. Bertan, gainera, eguzki panelak jarriko dituzte udal eraikinetan. Energia jasotzeko alternatiba ezberdinez hitz egin nahi izan dugu, haiekin eta beste hainbat udal eta familiekin.

Buruhausteaekarri du argindarraren prezioak, azken asteetan bereziki. Herritar xumeei benetan zaila egiten zaie energiaren kostua zeren arabera ezartzen den ulertzea, baina susmoa da haien kalterako eta energia ekoizle handien onurarako izaten dela. Iberdrola, Endesa edo Naturgy bezalako enpresa handiak saihesteko modurik ba al da? Guztiz ez, energiaren ekoizpena gutxi batzuen eskuetan baitago, eta kooperatibek zati bat ekoizten badute ere, handi horiei ere erosi behar diete energia. Baina alternatibek badute onurarik.

Guztiz berriztagarria eta gardena

Energia Gara (Som Energia) eta Goiener dira Euskal Herrian gehien zabaltzen diren energia berriztagarrien hornitzaileak. Biak dira kooperatibak, Som Energia katalunian jaio eta estatu mailan zabaltzen da. Goiener, izenak iradokitzen duen bezala, Goierrin sortu zen, eta Nafarroan badu

egoitza. Enpresekin duten alderik handiena Som Energiako boluntario den Pablo Ausejok esan digu: "Kooperatibak direnez ez dute bezerorik, kideak baizik, eta haien helburua ez da dirua irabaztea. Ez dituzte dibidenduak banatzen, haien bizirautea bermatzeko irabaziak soilik dituzte".

Aipatu dugu kooperatibek enpresa ekoizle handiei erosten dietela askotan energia. Hain zuzen ere, haiek ere ekoizten dute berriztagarrietatik datorren energia, eta kontsumitzen dugun elektrizitate guztia berriztagarria izatea kontratatu dezakegu haiekin ere. Orduan zergatik aukeratu kooperatiba?

Basaburuko alkate Esther Lakastak argi du: "Askoz ere etikoagoak direlako. Enpresa handiek jendea pobretzen ari dira bere negozioa egiteko, beren etxeetatik eta lurretatik botatzen". Basaburuko udalak Goienerrekin

du argindarraren kontratua 2016tik. "Oso pozik gaude. Etxean ere badugu, eta oso ongi azaltzen dute dena: zure kontsumoa nola kontrolatu, behar duzuna baino potentzia gehiago kontratatu baduzu... nik jendea animatuko nuke".

Odietan Som Energiara pasatu dira aurten. Alberto Urdaniz, alkatea: "Energia trantsiziorako batzordeak proposatu zuen -alkatea, zinegotzi bat eta hainbat herritar biltzen ditu-. Ekologikoagoak izateko helburuarekin egin genuen nagusiki. Iberdrola bezalako enpresa batekin ere egin genezake berriztagarrietarako pausu hori, baina kooperatiba aukeratu genuen izaera sozialagoa duelako".

Horrela dio Som Energiako boluntario den Pablo Ausejok: "Iberdrola ere merkatu berri honetan sartu da, bai, baina inpaktu handia duten panelez betetako zelaiekin egin du, merkatua kontrolatzeko asmoz".

Pablo Ausejo:

“

Haien bizirautea bermatzeko irabaziak dituzte soilik

”



eguzki panelak



“**Esther Lakasta:** **Kooperatibak askoz** **ere etikoagoak dira**”

Eguzki panelak eta energia komunitateak

Goienar edo Som Energia bezalako kooperatibek energia jasotzeko kontratua egiteaz gain, eguzki panelak jartzeko aukera ematen dute, norberak ekoitzi dezan kontsumituko duena. Imozko udaletxearen kasua da hori. Alfredo Alzueta, alkatea: “Duela lau urte kontratatu genuen Goienar, eta, ikusten genion onuretako bat zen gerora jarri genituen eguzki panelak jartzeko laguntza eta aholkularitza ematen zutela”.

Odietan ere panelak jartzeko asmoa dute: “Som Energia aukeratu genuen

gerora panelak jartzeko aukera ematen duelako. Ziur aski azkenean jarriko ditugu, baina, dena den, oraindik ez da posible behar den energia guztia horiekin ekoiztea”.

Anuen ere eguzki panelak jartzeko estudio bat egin zuten eta eguzki panelak jartzeko azken lanetan ari dira. Kasu honetan Aldro enpresarekin dute kontratua. Miguel Angel Larrayoz da Anueko alkatea: “Energia garbia erabiltzeagatik egin dugu aldaketa, eta baita fakturan aurrezteko ere. Probatuko dugu ea horrela den”.

Gainera, orain kooperatibak aukera berri bat ematen hasi dira, energia komunitateak sortzearena, eta Garesen dugu adibide bat: udalak eguzki panelak jarri ditu udal eraikinetan eta herritarrei zabaltzeko parte hartzeko aukera. Nahi duenak partaidetza erosi

dezake eta argindarraren fakturan deskontua lortuko du trukean.

Berriztagarriak, bai, baina, merke-agoak?

Basaburuko alkatea den Esther Lakastak baieztatu du: “Goienerrera pasatu baino lehen estudio bat egin ziguten eta urtean 5.000 eta 7.000 euro artean aurreztuko genuela jakin izan genuen, basaburuarren 7000 euro beste gauza batzuetarako!”.

Imotzen eta Odietan, ordea, zalantza gehiago ditzute. Alfredo Alzueta, Imozko alkatea: “Militantzia ekologikoarengatik egiten dugu, fakturan lehen ordaintzen genuenaren oso antzekoa ordaintzen baitugu”. Alberto Urdaniz, Odietako alkatea: “Ez zaigu merkeago aterako, faktura antzekoa izanen da”.

Etxean ere, berriztagarriak

Iñigo Ibarra eta Bakartxo Blanco, Anotzibar: Goienarrekin

“Iberdrolarekin asko ordaintzeaz gainera, gutxi kontsumitzen genuen hilabeteetan ere prezioz gizendu xamartuak zetozkigun fakturak. Telefonoz deitu eta begiralea ez zela pasa esaten ziguten, eta, gutxi-gorabeherako bat pasatzen zigitela. Ez kezkatzeko, hurrengo hilabetean orekatuko zutela kontadoreen irakurketarekin batera.



▲ Iñigo Ibarra, osaba Adi besoetan, Maddi, Oinatz eta Bakartxo Blanco. Duela urte batzuk Goienarrekin dutela argindarra.

Baina, nik tranpatxoa jarria nion kontagailuaren atetxoari, plastilina eta harritxo batekin. Hara ez zen inor bertaratzen, eta neurgailu automatikoak jarri gabeak zituzten. Beraz, bistakoa zen gezurretan ari zirela. Halaxe jo genuen Goienerrera.

Han, energia ekologikoaren eskaria handitzeko bermeaz gainera, faktura ahalik eta gehien merketzeko laguntza eman digute. Eta prezioan nabaritu genuen, jakina. Baina, batez ere, lapurtzen ez zigitelako lasaitua hartu genuen. Horrek asko balio du”.



▲ Dabid Elizondo 2014ean aldatu zen Som Energiara.

Dabid Elizondo, Ziaurritz: Som Energia

“Saiatzen naiz, ahal denean, kapitalismo basati honek inposatzen digun estrukturatik ihes egiten, beti ez dago aukera baina dagoenean, horretan saiatzen gara. Horrekin ekologiari, bertako eta gertuko ekonomiari fabore egiten diogu.

Batzuetan garestiago ateratzen da, baina kasu honetan ez da horrela. Merketu egin da argindarraren faktura. Urtean lau aldiz informeak bidaltzen dizkizute fakturaren kostua zertan jaitsi dezakezun aholkatzeko, besteak beste.

Ahalik eta lagun eta familiakide gehienei saiatu naiz enpresa lapurretatik ihes egiteko aholkatzen.

Bizikletaren Euskal Herriko historia ttikia

Euskal Herriko bizikletaren oinarria Eibarren kokatzen ahal dugu, hangoak baitira Orbea, BH edo GAC bezalako marka **entzutetsuak**. Dena dela, herriko industria **birplanteatzearen** fruitu dira txirringa- enpresa horiek; Izan ere, armak sortzen zituzten lantegiak ziren hirurak. XX. Mendearen hasieran, I. Mundu Gerraren ondotik, armagintzaren industriak **gainbehera** itzela izan zuen, eta, ondorioz, krisialdi sakonean murgildu zen. Egoera hartatik ateratzeko eta lantzen zuten gaia aprobeatzeko asmoz, bizikletak egiten hasi ziren. Geroztik, marka horiek azkartzen eta merkatuaren zati zabal bat **bereganatzen** joan ziren; hondarrean, armak alde batera utzi eta erreferentziazko ikur bihurtu arte. Bide horretatik, Conor, Monty, Mendiz, Razesa... txirrindula-etxe gehiago ere aurkituko ditugu Euskal Herriko historio ttikian.

Jakina da geurean txirrindularitzari lotutako **zaletasun** handia egon dela eta badagoela, segur aski, hein handi batean, bertako kirolari arrakastatsu eta txirrindularitza-taldeen garrantziak eragina izna duelako. Orbea, KAS, Euskaltel, Caja Rural, Euskadi-Murias, eta abar bezalakoak ditugu kirol talde horien arten, eta Miguel Indurain, Marino Lejarreta, Txomin Perurena, Abraham Olano, Mikel Landa, Izagirre anaiak... txirrindulari famatuen zerrenda luzean.

Gizonezkoen mundua **gailendu** den arren, azken urteetan, emakumezkoenak presentzia handiagoa izatea lortu du. Horren erakusle, hona hemen emakume txirrindularien aipamen batzuk: Joane Somarriba, Leire Olaberria, Irene Usabiaga, Mavi Garcia, Ane Santesteban...

Gaur egun, bizikleten mundua puri-purian dago. Badirudi gisa horretan konpentsatu nahi izan dutela zenbaitek 2020ko konfinamenduak ekarritako askatasun eta mugikortasun **eza**. Eskaera igoera horri mundu mailako merkatuko gorabeherak gehitzen badizkiogu, egungo bizikleta-denden zein zale gosetuen arazorik nabarmenarekin eginen dugu topo: stock faltarekin. Antza, txirringa-markek, kostuak merketzeko asmoz, Asiara eraman zituzten beren fabrikazio-prozesuak, eta, orain, garraio internazionalaren kolaposaren ondorioak **pairatzen** ari dira.

Kontuak kontu eta modak moda, poztekoa da halako berpizkundearen aitzinean egotea: askatasuna, osasuna, naturarekin bat egitea... Onurak baino ez ditu ekartzen bizikletaz ibiltzeak. Dei iezaguzue **ameslari** nahi baduzue, baina munduko arma-lantegi guztiak bizikleta-lantegi bihurtuko ahal dira!

Hiztegia

Entzutetsuak: Conocidas, famosas

Birplanteatu: Replantearse

Gainbehera: Decadencia

Bereganatu: Acaparar

Zaletasun: Afición

Gailendu: Imponerse

Eza: Falta

Pairatu: Sufrir



Mikel Landa txirrindularia



Joane Somarriba txirrindulari arrakastatsua



Rato Baltin proiektua aurkeztu zuten Aizarotzen

Be Artsy elkarteak martxan jarritako proiektua da Rato Baltin. Ontzi gorria esan nahi du Rato Baltinek, Nepaleko hizkuntzan, eta hango emakumeen egoera aldatzea du helburu, hilerokoarendako kopan bitartez. Clara Garcia Ortés katalana dago proiektuaren atzean, eta urtero Aizarozko lagun bat bisitatzera etortzen da gurera. Aurten, Basaburuan egitasmoa aurkezteko aprobetxatu du bisitaldia.



Tradizioak horrela aginduta, Nepaleko zenbait tokitan emakumeak isolatuta bizi behar dira hilerokoarekin dauden bitartean. Legeak debekatu egiten du praktika hori, baina herrialdeko toki askotan jarraitzen du oraindik. Chhaupadi deitzen zaio tradizio horri.

Chhaupadi

"Hilerokoa zikina iruditzen zaie, eta horregatik, emakumea ezin da etxean sartu. Ezin dira sukaldean sartu, ezta komunean ere. Ezin dira ur-iturrietara hurbildu (ez dute urik etxe barruan, iturrietatik hartzen da). Bizitza sozialetik guztiz isolatuta geratzen dira. Gose badira, norbaitek janaria hurbiltzeko zain egon beharra dute. Gainera, inork ezin ditu haien tresnak ukitu, eta janaria bota egiten diete, animaliak balira bezala", azaltzen digu Clara Garcia Ortések.

Garcia Ortések berak ez zekin zer zen Chhaupadia Nepaleko mendebaldeko zonalde isolatu horretara iritsi zen arte: "Argazkilaritza ikastaroak ematen nituen Nepalen, proiektu sozialetan, eta medikua den lagun batek mendebaldera gonbidatu ninduen". Katmandutik 40 orduara dagoen zonalde horretara joan eta gauza arraroak ikusten hasi zen: "Emakumeak mendian isolaturik ikusten nituen, etxola batzuetan, eta ez nuen ulertzen zer egiten zuten han".

Eta ez hori bakarrik: "Laguna nuen medikuak esan zidanez, bere lan nagusiak han bi ziren: emakumeak antisorgailuak hartzeko konbentzitzea eta emakume gazteen gorpuak altxatzea. Izan ere, hilerogutxienez sei emakumek egiten dute bere buruaz beste han, normalean umeak dituzten emakume gazteak dira. Lur jota gelditu nintzen, eta argazkilaritza ikastaroek ez zutela ezertarako balio pentsatu nuen".



▲ Hilerokoarendako kopa nolako den erakusten diete eskoletan

Hilerokoarendako kopak, aldaketatresna

Interneten ikastarorako materialaren bila ari zela ikusi zuen 'hilerokoarendako kopak euro baten truke' iragarkia, eta orduan zera pentsatu zuen: "Bertako emakumeek zer daramate hilerokoarekin daudenean? Edo ez dute ezer erabiltzen? Beharbada horretan dago Chhaupadiaren jatorria?". Kataluniara itzuli eta proiektua diseinatzeko hasi zen. Ruby Cup enpresak ematen dizkie kopak eta gauzak pixkanaka aldatzen hasi direla dio.

Baina, tradizioa nola aldatu?

Gutxienez 10 egun ematen dituzte herrietan eta neskei eta mutili ematen diete hezkuntza sexuala. Formatzaileak, guztiak, egitasmoaren ikasleak izandako emakumeak dira, orain kopa erabiltzen dutenak. "Haiek irakasten diete hilerokoa tradizioetik desberdintzen. Gauza bat da hilerokoa izatea eta beste bat tradizioak zer esaten duen. Horrela hasten gara pixka bat gauzak aldatzen".



▲ Hezkuntza sexuala ematen du Be Artsy erakundeak. Irudian, emakume batzuk klitoris baten prototipoa aztertzen ari dira



Pestak itzuli dira Lizason!

Urte eta erdi baino gehiago daramatzagu pestarik ospatu gabe eta Lizasori esker itzuli dira pestak eskualdera. Guk dakigunez lehenak izan dira berriz ere pestak antolatzen, eta, zubiarekin, gainera, giro ederrean izan ziren. Urriaren 29an izan zen txupinazoa, 17:00etan, eta hortik aurrera ekintza ugazoz gozatu zuten lizasoarrek eta bertaratu zen jende guztia.

Urteroko mozerro lehiaketa izan zuten, bertatik esan digutenez, bereziki landutako mozerroekin. Baita erronda ere, aurrean gainera, 3indarra elektrotxaranga girotuta. Larunbatean bazkaria egin zuten Orgijatetxean eta astelehenean paellada klasikoa. Hori otorduei dagokienez, baina gaiteroak, erraldoiak, eskulanak, puzgarriak eta hainbat eta hainbat ekimen izan ziren. Ezin ditugu guztiak nabarmendu, baina aipatu nahi

ditugu larunbat arratsaldeko *kilometro 0* kontzertuak, herrietakoak bertakoak diren musikariekin: Abian taldea, El holandés errante eta Marrubi.



Elektrotxaranga lizason

Pulunpeko zozketa mundiala izanen da urtarrilean

Duela bi urte izan zen azkena, izurritea tartean, pasa den urtean bertan behera uztea erabaki baitzuen Ametza Kultur Elkartek. Baina aurrean, bai, sari mordoak banatuko dituzte zuzen zuzenean Esan Erran irratitik.

Duela 9 urte hasi zen Pulunpeko Zozketa Mundiala, Nafarroako Gobernuak euskal aldiakari, telebista eta irratindako diru laguntzak kendu zituenean. Geroztik, Euskal Herriko hainbat lekutara zabaldu da estatuen eta herritarren laguntzagatik. Izan ere, ostatu eta jatetxeetan ez ezik, herritar asko ere aritzen dira urtero salmenta lanetan, berriz ere eskerrik asko.

2020ko edizioan 10 txerri gizen, 10 axuri eder, 18 otordu bikoitz, 24 gazta, 30 sakitxo... eta beste hainbat eta hainbat sari banatu ziren ilbeltzaren 12an 107.9an zuzenean egindako zozketan. Guztira, 134 sari. Aurrean ere beste asko banatzeko gogo izugarriak ditu elkarteak. Adi, laster emanen baititugu zehaztasun guztiak!



Zozketa mundialaren kartela



Elikaduraren inguruko ekimen ugari, Mendialdeko eskualde zabalean

Uztailean Mendialdeko Elikadura Mahaia sortu zuten Cederna Garalurrek, eskualdeko udal-ordezkariek, Habelarte baserritar-elkarteak eta Leitzako Kontsumo Taldeak. Urriaren 5ean egin zuten hirugarren bilera.

"2019an egindako lehen sektoreko diagnostikotik eta 2020an emandako prozesu parte-hartzaitatik ateratako informazioak argi erakusten du badauzkagula gai batzuk eskualde mailan gutxienez landu beharrekoak, besteak beste, Mimukai, jantoki kolektiboetan eskualdeko produktuak barneratzea (eskoletakoetan barne), Lurren eskuratzea nekazari eta abeltzaintzat, bertako produktuak baloreen ipintzea, azoka ibiltariak, elikagaien xahuketa,

emakume baserritarrak balioan ipintzea, kontsumo kultura...", diote zabaldutako oharrean.

Mendialdeko elkarte eta teknikari desberdinek antolatuta, elikadura sistemarekin lotutako agenda zabala izan dugu urrian: kontserbak egiten ikasteko emakumeen topaketa Atetzen, aldaketa sozio-ekonomikoek gure paisaian eta bizitzetan duten eragina aztertzeko beste bat Leitzan, lehen sektoreko ekoizleei, eraldatzaileei eta merkaturatzaileei zuzendutako saioak,...

Azaroaren 7an, zita garrantzitsua izanen dugu berriz eskualdean. Mendialdeko azoka ibiltariaren azken geldialdia izanen da, Lekunberrin.



CAMPING - KANPINA

IZARPE

ULTZAMAKO ATEA - PUERTA DE ULZAMA

Etxean eginiko eguneroko menua
Hamaiketakoak - Parking zabala
Pizzak, Hanburgesak.... Oilaskoen eta
paellen eskaerak egiteko aukera



eta.... Ostegunero
8ak aldera Pintxo Pote

EGUNERO IREKITA



Fruta eta Barazkiak - Haragi freskoa
Produktu ekologikoak eta bertakoak

Astelehenetik Ostegunera, arratsaldean...
10 Euroz gorako edozien erosketarekin

kafea edo kaña dohain.



Andoni Egaña

Berria

Zakilak

2021eko urriak 27

Gogoan du maiz egiten zituztela grebak bere ikasle garai hartan. 75etik 83rako urte haiek katramilatsuak izan ziren oso. Greben arrazoia «politika»-rekin lotua izaten zen gehien-gehienetan. Erailketaren bat, sarekadaren bat, tortura salaketak... Urteurren eta horrelakoak ere ez zituzten oharkabean pasatzen utziko. Eskola edo unibertsitateko hormatan lau txartel ipini deialdia egiteko, eta aurrera!

Brumatsu du gogoan aspaldiko pasadizo hura. Irakasleak arbelera atera zuen neska bat. Begiratu bat bota zion goitik behera eta mespretxuz eman zion aholkua: «Daukazun ipurditzar hori disimulatzeke hobe zenuke gonak jantzi praken ordezl!». Brumatsu du gogoan. Eraso hari erantzuteko zerbait egitera iritsi ziren. Baina ez segur aski behar adina. Harro dago, gaur egun, orduan gertatua erasotzat identifikatzeko adina izan zirelako, burutu zutelako protesta moduren bat, irakasle haren hurrengo eskolara ez zirelako joan. Eta aldi berean, gaur egun, lotsatu egiten da, burutu zuten protesta oso bigarren mailakoa izan zelako, ez txartel, ez hedabide, ez grebarako deialdi. Arrazoia ez zen aski «politikoa» nonbait orduko mentalidadeentzat...

Unibertsitatean ere beti izan dira irakasle zakilak. Eta halakoa denak, irakatsi baino errazago egiten du erakutsi...

Erasoko frontoiaren mendeurrena ospatu zuten urriaren bukaeran

Ehun urte bete ditu aurten Erasoko frontoiak, eta herritarrek festa giroan ospatu nahi izan dute mendeurrena. Urriaren 23an, egun osoko egitaraua prestatu zuten: eguerdiko 12:00etan aurrekua dantzatu zioten frontoiari, eta ondoren, 12:45ean, frontoian argazkia atera zuten guztiek. Segidan, pilota partida mistoak jokatu zituzten, eta txistor mokadutxo ere izan zen hurbildu zirenendako. Gero bazkaria, Joxe Angelekin dantzaldia, eta eguna bukatzeko DJ Txokiren saioa izan zuten. Jende mordoxka bildu zen Erason, eta giro ederrean ospatu zuten urtebetetzea.



Erasoko frontoia

Finalerdietarako txartela lortu du Endika Legarra Nuin Imozko bertsolariak

Nafarroako Bertsolari Txapelketako final laurdenak amaituta, esku artean dugu honezkero hurrengo fasera pasatuko diren 18 bertsolarien zerrenda. Tartean da Endika Legarra, Goldarazko sustraiak dituen bertsolaria. Azaroaren 1ean hasiko dira finalerdiak, Altsasun. Finalerdietako bigarren Berriozarren jokatu da, azaroaren 6an; eta azkena, berriz, Leitzaan, azaroaren 14an.

Altsasuko saioan kantatuko du Legarrak, Ekhiñe Zapiain Arlegi, Eneko Fernandez Maritxalar, Erika Lagoma Pombar, Oier Lakuntza Irigoien eta Xabat Illarregi Marzolekin batera. Saio bakoitzeko irabazlek zuzenean sailkatuko dira finalera, eta gainontzeko finalistak puntuazioaren arabera erabakiko dira.

Final handia Iruñeko Anaitasunan jokatu da, azaroaren 28an. Ikusiko dugu nortzuk izanen diren bertan kantatzeko txartela eskuratzen duten bertsolariak. Bitarte horretan,



Endika Legarra, final laurdenetako saioan



Andoni Gaskue kontratatu du Aspek

Sorpresaz eta ilusioz jaso zuen berria. Izan ere, martxotik irailera bitartean lesionatuta egon zen. Osatu eta munduko sub-23 txapelketa jokatu zuen urriaren 17tik 23a bitartean, urrea lortu eta berehala Aspe enpresaren deia jaso zuen. Urriaren 26an proba egin eta 27an sinatu zuen kontratua, bi urterako.

Aspeko webgunean irakurri ahal izan dugun bezala, "egunero-egunero hobetzen" joan nahi du hurrengo bi urte hauetan, "amets bat bete dut" adierazi du atzelari ultzamarrak.

Bere herrian bertan, Larraintzarren, debutatu zuen azaroaren 5ean. Pulunpe honen itxieran oraindik ez da partida jokatu, eta, beraz, ez dakigu ze emaitzarekin. Altuna edo Ezkurdia izango du aurrelari, beraz, primerako kidea. Aurkariak Elezkano II eta Tolosa izanen ditu.

Hilabete borobila, beraz, Larraintzarko 22 urteko pilotariarendako. Munduko txapelketan bere lanak lagundu zion Espainiako selekzioaren arrakastari, izan ere, munduko txapelketetan herrialde garailea izan zen sei modalitateen artean laueta irabazteagatik, tartean, Andoni Gaskuek Ander Murua arrasatearrarekin batera lortutako urrea binakako txapelketan.



Andoni Gaskue garaipena ospatzen ▲



Andoni Gaskue eta taldekideak podiumean ▲



**TXAKUR
JANARIA**

CARLOS 660781595
Pili 650206699





Amaitu da Gartzarongo pilota txapelketa

Alde batetik, urriaren 16an izan zen emakumeen finala eta txapeldunak Laia Salsamendi eta Ane Mendiburu izan ziren erraz irabazita, gainera, 18 eta 7, Arrate Bergarari eta Mirian Arraizi. Ligaxkako partidari buelta eman zioten beraz, izan ere, haien kontra 18 eta 15 galdu baitzuten aurretik. Bestetik, gizonezkoen finalak izan ziren urriaren 23an eta 24an. Helduen mailan Yoldi eta Beroiz irabazi zuten, 22 eta 13; gazteen mailan, Ibarlozak eta Eskutzak eskuratu zuten txapela, 22 eta 21; Gaztetxoetan, Odriozolak eta Ezamak, 18 eta 17; Haurren mailan

Rekaldek eta Nazabalek 18 eta 5; eta, bukatzeko, umeen mailan, Etxanizek eta Seguiolak, 18 eta 10.

Pasa den urtean ezin izan zuten antolatu, baina aurten itzuli da Gartzarongo pilota txapelketa. Hala eta guztiz ere, murrizketak egin behar izan zituzten 36. edizio honetan, eta gehienez 168 bikotek ematen ahal zuten izena, guztira. 32 bikote maila bakoitzan, neskeenean kenduta, emakumezkoen mailan 8 bikotek izan baitzuten aukera apuntatzeko.



Gartzarongo txapelketako txapeldunak.

Peio Etxeberria, Lau t'erdiko finaletik kanpo

22 eta 8 galdu zuen Lasoren kontra, Labriten jokatu zuen finalaurrekoan, urriaren 30ean. Bareak hartu zion, gero azaldu zuenez, eta ezin izan zion buelta eman.

Pilotari zenoztarrak indartsu hasi zuen eta lehenengo bost tantoak jarraian egin zituen. Baina gogor hasteak garesti ordaindu zuen, bareak hartu zion eta hortik aurrera ezer gutxi egin ahal izan zuen Unai Lasoren kontra. Fisikoki ezin izan zuen hasieran, eta gero horrek psikologikoki ere eragin zion. Bukaeran tantoren bat egitea lortu zuen, baina beranduegi zen markagailuari buelta emateko.

Peio Etxeberriaren lehenengo finalaurreko handia izan zen, lau t'erdiko lehenengoa. Eta, nahiz eta ezin izan duen ametsa bete, pozik agertu da egindako txapelketarekin: "Pena bat izan da Labrit bezalako frontonean eta aukera honekin dena eman ezin ahal izatea, baina hau horrelakoa da, batak edo besteak irabazi edo galdu behar du, Laso zoriontzea besterik ez dago, eta hurrengoan pentsatu behar dut orain. Finalean ez sartzearen penarekin gelditzen naiz, beti eman behar delako pixka bat gehiago finalera sartzeko, baina lanean jarraituko dugu, jarrera onarekin".



Peio Etxeberria



errigora.eus



eskatu saskiak
eta eman hauspoa
euskarari Nafarroa he-
goalde eta erdialdean

urriak 23 - azaroak 11

Nafar hegoaldeko uzta
euskarari puzka

Herriak egiten du herria





Familia anitzak

Gure eskualdean ere, badira eredu desberdinak

Gurasotasuna bizitzeko modu desberdinak tokia irabazten doaz azken urteotan, betiko familia eredu zurrinari alternatibak eskainiz. Kontua ez da gizon, emakume eta hurrez osatutako familiak zalantzan jartzea, bestelako ereduei ere lekua ematea baizik. Gure eskualdean ere badira familia forma anitzak, eta orain arte ikusgarritasun handiegirik izan ez duen eredu baten esperientzia jaso nahi izan dugu erreportaje honetan.

Duma Pino, Maite Irigoien eta Miguel dira beraiek, eta Jauntsaratsen bizi dira duela zenbait urtetik. Imoztarra da Irigoien, Etxalekukoa. Pino, berriz, urrutixeagotik iritsi zen gurera duela sei urte; Valladolidetik, hain zuzen. Bikote bezala lehen urteak Irurtzunen eman bazituzten ere, ez zuten zalantzarik izan eskualdean elkarrekin bizitzeko aukera zabaldu zitzaizenean. "Han geundenean atera zen Jauntsarasko Udalaren pisu hauen aukera, eta zuzenean esan genuen, 'goazen hara!'. Inguru honetara bueltatu nahi genuen, herri txikiago batean bizi", diote. Herrian bizitzeak zailtasunak bai, baina onurak ere badituelako. "Azken finean, bizilagunek txiki-txikitatik ezagutzen zaituzte eta zure familia ere bai, eta horrela errazagoa izan daiteke elkar errespetatzea", diote.

Eredu falta eta ezezagutza

Zoritxarrez, behar baino ohikoagoa izanda urte askoan –eta da, oraindik– LGTBQ komunitateko pertsonak eta sexualitate ez normatiboak bizi dituztenak herri txikietatik kanpora atera behar izatea: dela atzerrira, dela hiri handiagoetara... Gauza bera gertatu izan da askotan familia eredu ez hain tradizionalekin ere. Irigoien eta Pino Jauntsaratsa etorri zirenean ez zuten lesbiana bikoterik ezagutzen eskualdean. "Gerora joan gara bikote gehiago ezagutzen, baina iritsi ginenean ez geneukan inongo erreferentziarik. Proba moduko bat izan zen, gure buruari esaten genion: 'Tira, ea zer gertatzen den!'".

Elkar ezagutu zutenetik naturaltasun eta normaltasun osoz eraman zuten harremana

“ Semearekin ikustean esan izan digute, 'Bi ama dituela? Nola da posible? ”

Etxalekun, eta komentarioren bat edo beste kenduta, ez dute aparteko arazorik izan. "Egia da pertsona batzuei, batez ere adineko jendeari kostatzen zaiola pixka bat. Askotan pasatu zaigu pasiatzera atera eta jendeari gure umea aurkezterakoan haiek harrituta esatea, 'Baina, nola? Hori posible da?'". Askok oraindik ez dute ulertzen aukera desberdinak daudela, eta familia bat ez dela nahitaez ama batez eta aita batez osatua egon behar. "Posibilitate askoz gehiago daudela ohartu beharra gara: bi emakume izan daitezke gurasoak, edo bi gizon, edo emakume bakar bat... Azkenean, ama bakarrei jendeak erabat aitaz galdetzeak ere oso neketsua behar du izan", diote.

Komentarioak gehienetan maliziarik gabe egin dituztela uste du bikoteak, gero barkamen eske ere joan izan zaizkielako. Erreferentzia faltatik eta ezezagutzatik izan da gehiago, baina etorkizunera begira txip aldaketa bat beharrezkoa dela uste dute. "Azkenean, normaltasunez egiten diren komentario asko, adibidez mutiko txikiei esaten zaienean 'ai, seguru neskato guztiak atzetik



Duma, Miguel txikia eta Maite, Jauntsaratsen



izanen dituzula!' eta antzekoak, ez gara ohartzen agian ze kalte egiten ari garen".

Ama izateko prozesu luzea

Hasieratik argi zuten biek ama izan nahi zutela. "Nire buruari topea 30 urteetan jarri izan diot beti; izan bikotearekin ala izan bakarrik, baina argi nuen ama izan nahi nuela", dio Irigoienek. Eta Pinok, erdi-brometan: "Justu-justu iritsi nintzen nil" (barreak).

Ama izateko prozesua osasun publikotik egin du bikoteak. Onartzen dutenez, hasiera baten pentsatzen zutena baina luzeagoa eta zailagoa izan da bidea. "Bikote heterosexualek ere jo dezakete osasun publikoko ugalkortasun

sailera arazoak dituztenean. Haiek bi urte eman beharra dituzte laguntzarik gabe haurdun gelditzeko saiakeran, eta behin epe hori pasatakoan, ospitalera bideratzen dituzte". Bikotea bi emakumek osatutakoa denean, ordea, bi urteko epe hori saltatu egiten da zuzenean, bistan da zergatik.

"Haurdun bietako zein geldituko zen galdetu ziguten, elkarriketa moduko bat egin, eta intseminazio zikloekin hasi ginen", azaltzen dute. Prozesua gorputzarentzako oso bortitza dela diote, izan ere, obulaziorako hormona ugari hartu behar izaten dituzte, horrek suposatzen duen guztiarekin. Bi aborto ere izan zituzten bidean, eta emozionalki ere gogorra egin zaie.

Osasun publikotik egin dute prozesu osoa Irigoienek eta Pinok

Azkenean, in vitro ernalketa bidez saiatu eta horrela bai, lehen zikloan lortu zituzten hiru enbrioi on. Horietako bat jarri eta haurdun gelditu zen Irigoien. "Lehen ekografia abenduaren 23arekin izan genuen. Aurreko aldietan, momentu horretan esan ziguten haurdunaldia ez zihoala aurrera, eta horregatik, guztiz ikaratuta joan ginen. Baiezkoa esan zigutenean negar batean jarri ginen biak. Abenduaren 22ko loteria guri 23an iritsi zitzaigula diogu", diote, barrez.

Etorkizunari begira

Urtebete du Miguel txikiak, eta sarri hasiko da eskolan. "Batzuk esaten digute iseka egingen diotela, baina tira, haurrek edozein arrazoi bilatuko dute horretarako: izan bi ama dituelako, edo ilegorria delako, edo izen arraro bat duelako...". Azpimarratzen dute, gainera, normalki haurrek horrelakoengatik iseka egiten dutenean etxean mezu hori jaso duelako izaten dela.

Beldur pixka bat badute, baina ziur dira semeak horrekin bizitzen ikasiko duela eta jaso ditzakeen isekei aurre egiteko erremintak ere eskuratuko dituela. "Guk berari guztia den bezala kontatzeko asmoa dugu, haurrei gauzak haien moduan azalduta dena ulertzen dutelako, eta horrela errazagoa zaielako defendatzea ere". Azkenean, bizitzan bezalaxe, kritikatzeko dituztenengatik urruntzea eta onartzen dituztenengana hurbiltzea da gakoa, bien ustez.

Ezkontzeko obligazioa, lesbianen bakarrik

Administrazio eta burokrasia aldetik oztopo ugari daude oraindik emakumek osatutako bikoteek guraso izan nahi dutenean. Izan ere, bikote heterosexualek kasuan ez bezala, ezkontuta egon beharra dute osasun publikotik ugalkortasun laguntza jasotzeko eta haurra bien izenean inskribitu ahal izateko. "Ezkontuta ez dauden bikoteen kasuan, erditu ez duen emakumeak bere seme edo alaba propioaren adopzio prozesua abiatu beharra du". Noski, ama bezala inskribatu ezin izateak bajaran

eta haur horrekiko beste eskubide guztietarako aukera ukatzen die.

Hain zuzen, ekainean onartu zuten Espainiako estatuan eztabaida ugari sortu dituen LGTBI Berdintasun Legearen aurreproiektua, beste gauza askoren artean, emakumek osatutako bikoteek ezkondu beharrik gabe haurrak izateko eta bien izenean inskribitzeko aukera ematen duena. Pauso txiki baten bada ere, badirudi administrazioa eta legeak pixkanaka badoazela errealitatera egokitzen.



Nafarroako Parlamentuak 2017an onartu zuen LGTBI Berdintasun Legea. Irudian, kolektiboak ospatzen







Ongi etorri

Oskotza II

Rakel Fernandez eta Dani Iriarte Laset: “Argi genuen herri batera etorri nahi genuela, hiriko bizia ez dugu oso gustuko”

Duela urtebete pasatxo iritsi ziren Rakel Fernandez irurtzundarra eta Dani Iriarte Laset erdi imoztar erdi sarrigurendarra Oskotza (Imotz). Erdi imoztar, diogu, aita Urritzakoa baitu, eta txikitatik harreman estua izan baitu bailararekin. Honezkero bi urte dituen alaba txikiarekin etorri ziren herrira, bertako bizilagunen artean poza sortuz. Izan ere, herriko haur txiki bakarra da Hendaia

Nondik nora erabaki zenuten herri batera bizitzera etortzea, eta zergatik Oskotza?

D: Sarrigurendik etorri ginen duela urtebete, gutxi gora behera. Aita Urritzakoa dut nik, eta nire hango osabek esne-behiak kendu arte astebururo etortzen nintzen txikitatik, haiei laguntzera. Baserriko lanetan eta inguruan ibiltzen nintzen, eta sokatiran hasi nintzen duela hogeitau urte baino gehiago, Muskizko, Etxalekuko eta inguruko jende asko ezagutu nituen. Sarrigurenen bizi ginenean ere soro pare bat bagenituen hemen,

Muskitzen eta Urritzan. Erleekin hasi nintzen lanean, eta ardi batzuk ere bagenituen ordurako soroa txukun mantentzeko.

R: Nik ere banuen harremana hemengo jendearekin, Erasokoekin batik bat. Eskolatik ezagutzen nituen, eta dezente etortzen nintzen hona. Gainera, Erason ezagutu genuen elkar, ihoteetan! Egia da aspalditik genuela pentsatua berdera etortzea, herrira, baina konfinamenduak gogo hori handitu egin zigun. Hiriko bizia ez dugu oso gustuko, eta beraz, aukera hau zoragarria izan zen!

Nola atera zitzaizuen Eskoletxeko alokairuaren aukera?

D: Obra egin zuen hemen Kontzejuak, eraikina berritzeko eta alokairura ateratzeko. Sekulako arrakasta izan zuen alokairuaren eskaintzak.

R: Aukeraketa prozesu baten bidez lortu genuen guk. Eskaera egiten zutenen profila begiratzen zuten:

familia baten profila bilatzen zuten, haurrekin bazen hobe, herriko bizia gustuko zuen jendea... Familia asko aurkeztu ziren, eta elkarrizketak-eta egin behar izan genituen.

D: Nik uste azken momentuan gu hurbilekoak izatea eta bailararekin harremana izatea ere baloratu zutela, herri txikietako bizimodua lehenagotik ere ezagutzea.

R: Bai, zeren azkenean, herriko bizitza oso idilikoa da, baina hona etorri eta herriko jendearekin sozializatzen ez baduzu, uf... Gerta daiteke hiriko jendea hona etortzea baina gero bere bunkerrean gelditzea, atera gabe. Nik uste hori ere kontuan izan dutela, bizia herrian egiteari, herriari ere ekarpena egitea.

Urtebete pasatxo daramazue hemen. Zer moduzko harrera egin dizuete Oskotzen?

D: Oso harrera ona egin digute, orokorrean. Tira, egia da hutsetik ere ez ginela etorri, herriko batzuk ezagutzen genituen lehenagotik, orain harreman estuagoa dugu. Baina bai, harrera ona egin digute.

Haur txiki bat ere baduzue.

R: Bai, Hendaia du izena, eta urtarrilean egin zituen bi urte. Herriko haur txiki bakarra da, momentuz. Jauntsarasko haur eskolara daramagu, eta oso-oso gustura dabil han. Eta herrian ere bai. Hori nahi genuen guk, berak ere herri batean bizitzeko aukera izatea. Sarrigurenen bizitza ez da Iruñeko zentroan bizitzea bezala,

“
Gure alabak ere
herri batean
bizitzeko aukera
izatea nahi genuen
”



Rakel, Dani eta Hendaia txikia, etxe atarian ▲



baina ez du honekin zerikusirik. Eta txikitan gu biok herriko bizitzarekin harremana izan dugunez, hori nahi genuen gure alabarentzako ere. Azkenean, Irurtzun ez da agian herri txiki-txikia, baina herria bada, giroa lasaiagoa da bertan, mendia hor dago, animaliak ere bai...

Momentuz hemen bizi zarete alokairuan, baina erosteko zerbaiten bila jarraitzen duzue, ezta?

D: Etxe bila gabiltza, bai. Pena da, zeren, duela urtebete egitasmo bat atera zen hemen Oskotzen, hileritik gertu zeuden partzela batzuetan urbanizazio txiki bat egiteko. Azken urteetan hemengo jende askok kanpora joan behar izan du arrazoi batengatik edo beste batengatik, eta nolabait hori berreskuratzeko asmoz egin zen proiektuaren proposamena. Baina, azkenean, batzar batean bozketa egin eta ezezkoa atera zen. Orain beste zerbaiten bila ari gara gu, hemen hurbilean, Imotz aldean

edo hortik gertu, Zian... Batez ere gero Irurtzongo ikastetxera eraman nahiko genukeelako alaba, aitatxi eta amatxi eta izebak-eta han dituelako.

Zaila dago landa eremuan etxe bat topatzea?

D: Bai, bai, oso zaila dago. Ez eraikitzeke lurrak, ez etxeak... tarteka suertatzen dira etxe batzuk salgai, baina oso handiak dira, baserri modukoak, partekatu egin beharra duzu, beste familia batekin edo birekin adostu... Duela gutxi egon ginen Latasan etxe bat ikusten, baina uf, etxe zaharra zen, obra handia behar zuen, eta denboran eta diruan asko eskatzen zuen. Orduan, ba hortxe ari gara, bila.

R: Pena da, zeren interes handia dago landa eremura eta herrietara bizitzera etortzeko; lehen mundu guztiak hirira joan nahi zuen, eta orain ikusten dut jende askok herrira itzuli nahi duela. Kontua da, interesa egon badagoela, baina askotan, aukera handirik ez dela egoten herrietan.

“ **Herrira bizitzera etortzeko interesa egon badago, baina ez dago bertan bizitzeko aukera handirik** ”

Iruñea inguruan egiten dute biek lan, eta egunero lekualdatu behar hori egiten zaie gogorrena. Guztia balantzan jarrita, ordea, ez dute zalantzarik herrian bizitzeak konpentsatzen diela. Autobus gidaria da Dani Iruñean, Villabesetan. Rakelek, berriz, Mutiloan egiten du lan, ADACEN, garuneko kalteak jasan dituzten pertsonak babesteko elkartearen, monitore gisa.

Zorionak Zorionak !



Zorionak Iratze!



Zorionak Beñat!



Zorionak Xerpio!



Zoriondu zure laguna
Pulunpen!
pulunpe@gmail.com



Etxalekuko

pilotalekuaz gehiago

Gora pilota, baina euskara bazter utzi gabe

Aurreko Pulunpen Etxalekuko pilotalekuaren historiaz idatzi genuen, baina bitxikeria inportante batez ez genuen deus esan. Bertan jarri zuten idazkun batez ez genuen idatzi eta gaur da egokiera horretaz zerbait esateko.

Horrela jartzen du Etxalekuko pilotalekuaren errematean, frontisaren gainean:

PLAZA AU EGIN ZAN 1921GAÑEN URTEAN.

Euskaraz jartzen du. Garai hartan euskara zen Imozko hizkuntza printzipala, arrunta, jende guziak erabiltzen zuena. Jende bakar batzuek besterik ez zuten erabiltzen erdara. Baina, irakurri eta idatzi erdaraz egiten zen. Eskola erdaraz zen. Orain, zoritxarrez, aldrebes (alderantziz) da.

Nork eta zergatik jarri ote zuten aipu hori euskaraz garai hartan ia beti erdaraz jartzen zirenean horrelako gauzak? Zergatik Etxalekun euskaraz? Nor ote zen idatzi honen ama edo aita? Plazako frontisari begiratzean, behin baino gehiagotan galdera bera burura:

Nor dago idatzi honen atzean?

Herriko apeza ez zen urruti ibiliko. Oso-oso segurua ere iruditzen zait niri. Apezak ia oraintsu arte gauza hauetan erabakigarriak izan dira. Bestela nor izan zitekeen? Orduko Etxalekuko jende errolda ikusi eta ez dut besterik ikusten. Ez da besterik izaten ahal. Eta garai hartan Don Jose Angel Urritza Gaztelu zen hemengo apeza, Marimigeleneko semea. Eta honi nondik zetorkion euskalduna izateaz gain euskaltzalea izatea? Aita Intza kaputxino euskaltzale porrokatuaren mireslea izan zen. Damaso Intza kaputxinoak adiskidantza handia zuen **Marimigelenekoekin** eta batez ere bertako apezarekin.

Hala ere, Intza baino lehenagokorik bazuten **Marimigeleneko** eta **Dorrotokoek** euskarari dagokion kontu honetan, ahaide famatu bat. Lehenago ezagutu zuen Don Jose Angel Urritza Gazteluk itzal handiko beste maisu bat, eta batez ere hurbilagokoa, seminario denboran: Don Esteban Obanos Urritza, osaba-ttikia.



Txurdan

Hiztegia

Berezitasuna: peculiaridad

Bitxikeria: rareza, aipagarria dena.

Idazkuna: paretetan-eta jartzen diren esaldi eta idatzia (inskripzioa)

Egokiera: aukera, zerbait egiteko ahal.

Arrunta: general

Aipua: Aipamena

Jende errolda: Padron (jendearen zerrenda)

Mireslea: Admirador

Zuzenbidea: Derecho (ikasketak)

Idazkari-diruzain: Secretario-tesorero

Elizbarrutia: Diócesis

Benefiziadua: Apezaren laguntzailea. Bigarren apeza (Parrokoa eta benefiziadua izaten ziren orduan Etxalekun)

Maneiatu: Manejar



Marimigeleneko aurrean, erdi-erdian, Jose Angel Urritzaren jaiotetxea. Atzean Apezetxea bere balkoi ederrarekin.



Pilotalekuko gainean idazkuna ongi idatzia.



Don Esteban Obanos Urritza, Iruñeko apez jakintsua, euskalduna eta euskaltzalea

Aipatu dugun bezala, Don Jose Angel Urritzak bazuen Iruñean osaba-ttikia, bere aitatziren anaia bat, apeza: D. Esteban Obanos Urritza, Iruñean sortua nahiz ama Teresa Urritza Orderitz Etxalekuko **Dorrotoko** alaba izan.

Estebanek, apez egiteko ikasketak Iruñean egin zituen, lehen hiru urteak, eta gero Oñatiko eta Salamancako Unibertsitateetan 7 urte.

Zuzenbide kanonikoan eta zibilean lizentziatua. Hortaz gain, musika zalea amorratua eta San Saturninoko Parrokiako Koruko zuzendaria izan zen.

Beste hainbat kargu izan zituen: Abokatuen Kolegioko Idazkari-diruzain 32 urte baino gehiagoan, Maisu Eskolako katedraduna, Elizbarrutiko fiskala zenbait urtez, Longidako Artziprestea...

Eta lan guzi horietaz gain, alde batetik Nafarroako Monumentuen zaintzeko sortutako Batzordeko kide izan zen, eta bestetik, Espainiako Historia Akademiako kide.

Euskararen defentsan ere ausart eta bizkor ibili zen. Ikusirik

euskararen gainbehera ziztu bizian zihoala, 1868. urtean, Nicasio Landa mediku famatua eta Iturralde y Suit geografoarekin batera ibili zen zerbait egin nahian. Zoritxarrez, azken gerra karlista etorri eta bertan behera utzi beharra izan zuten euskararen alde egin beharreko proiektua. Geroago, gerra pasa ondoren, 1876. urtean, Nafarroako intelektual bizkorrenak bultzatuta

Asociacion Euskara sortu zuten, euskara bultzatzeko eta babesteko elkarte. Honetan lehendakaria izan zen, lehena.

1888ko urtearen hasieran hil zen gure gizon handia.

Imotzekin zuen harremana

Imotzekin harreman handia izan zuen Obanosek. Dorrotoan aitatxi-amatxi eta osaba eta lehengusuak izateaz gain, 1827ko azaroaren 15etik 1829ra artio Etxalekuko benefiziaduna izan zen.

Eta Oskotzen, berriz, apez egon zen 1838ko otsailetik 1841eko apirilera.

Hortaz landa, topatu ahal izan ditugu bi pleitu ere, non bera abokatu lanetan aritu zen, lehena Dorrotoko larraina zela-eta Kontzejuaren

kontra 1833. urtean. Eta bestea 1846. urtean Oskozko Jose Joaquin Noain Urkiolaren alde, bertako maisua zena.

Dudarik ez dago bere iloba ttikiarekin, Jose Angel Urritza Gaztelurekin harreman zuzena eta beroa izan zuela hau Iruñeko Seminaria apez ikasketak egitera joan zenean, 1872an edo.

Etxalekuko elizako dirua ere, 500 duro, urte luzez Obanosek maneiatzen zuen, urtero-urtero Parrokiak errenta polita eskuratuz. Eliza berria egin zenean eta azken kartutxo bezala diru hori berreskuratu zuten 1876. urtean (Eta oraindik lanak bukatzeko asko falta)

Imotz, eta bereziki Etxaleku, Don Esteban Obanosekin loturik egon ziren, nonbait herria eta bere amaren sortetxea bihotzean izan zituen.

Hemen eman ditugu Don Esteban Obanosez zertzelada batzuk. Merezi luke zerbait gehiago gizon handi honek, biografia arin bat gutxienez, askotan gure aurrekoen berri gutxi izaten baitugu. Euskararen alde fier aritu direnei gure esker ona! Esaera zaharrak dioten bezala: *Izan zirelako gara eta izan garelako izanen dira. Izan, izan ziren, baina, nire betiko galdera berriz ere: baina, bagara? Bazara?*

 **Txurdan**

Oharrak:

Damaso Intza kaputxinoa, fraide egin aurrean Miguel Olasagarre izen-deiturak zituena Intzan sortu zen 1888an eta bi urte besterik ez zituenean Madotza aldatu zen. Kaputxino ordenatu eta herri hauetan misio lanetan ibili zen. 1936. urtean gerra etorri zenean Txilera desterratu zuten eta 1968an itzuliz. Euskararen aldeko lan handiak egin zituen. Euskaltzaindiak badu larraundar honen biografia Jose Maria Satrustegik idatzia. Sartu Euskaltzaindiko Web orrialdean.



▲ Dorrotoa, Esteban Obanos Urritzaren amaren jaiotetxea



Eritzeko eskola izatetik, bailarako Kultur Eskola izatera

“Orain arte ez geneukan elkartzeko horrelako gunerik bailaran, eta Eritzeko Kontzejuak eskuzabaltasun handiarekin aukera ederra eman digu hogeit urterako zesia eginez”, azaldu du Paula Ibero Baraibar Atezko alkateak. Kontzejuak eraikineko teilatua moldatu zuen duela zenbait urte, eta orain, Nafarroako Gobernuak bi dirulaguntzei esker, Udala izan da eraikineko lehenengo solairuan egokitzapen lanak egin dituenak.

Bailaran antolatzen zituzten ekimenetarako gune egoki bateri falta aspaldidanik zutela adierazi du alkateak. "Udaleko batzar-gela erabili izan dugu, baina ekimen askotarako ez da batere leku egokia, hotza egiten du... Izarpe Kanpinak ere utzi izan digu lekua horrelakoetarako, baina gune

publiko baten beharra baguenen". Momentuz lehen solairuan egin dute obra, eta tailer eta ikastaroetarako gune zabal bat eta bilerak-eta egiteko gela txikiago bat dituzte bertan. Leihoak aldatu, paretak isolatu, egurrezko lurra jarri, gunea errazago berotzeko zati bat itxi, pelletezko berogailua jarri, bukatu gabe zegoen balkoia atera, beheko solairuko bainua egokitu... "Obra garrantzitsuak egin ditu Udalak gunea egokitzeko".

Beheko solairua ere berritzea zen haien asmoa, baina horretarako eskatua zuten diru-laguntza ukatu egin du gobernua, eta, beraz, aurrerago bukatu ahal izateko esperantza du alkateak. "Aurrera begira, beheko partean kultura eta gastronomia uztartzeko gunea egitea da gure asmoa, bazkariak, afariak eta horrelakoak antolatu ahal izateko", dio. Horretarako




Herritar ugari bildu zen ate irekien
jardunaldian

sukalde bat denen eskura jartzea
litzateke ideia.

Eskola zaharra, eraikin sinbolikoa

Bailarako hainbat herritako haurrak joaten ziren Eritzeko eskolara urteetan, eta eskola izateari utzi zionetik ere, eraikinak erabilpen publikoa izaten jarraitu duela nabarmentzen du Iberok. "Atezko ihauteriak bertan ospatu izan ditugu urte askoan, hortxe elkartzen ginen bailarako gazte guztiak: bazkariak, afariak... denetik egiten genuen".



Eskola zaharreko lehen solairua berritu du udalak, momentuz ▲

A-25

Emakumeen aurkako
indarkeria ezabatzeko
nazioarteko eguna

Bakardadean pairatzen diren
zauri ikustezinak daude.

Indarkerien biktima diren
emakumei **laguntza integrala**
emateko taldeetan bizitza
hobe baterako atea irekitzen
lagunduko dizugu.

www.igualdadnavarra.es/taldeak



Attek gerezik eosi

Herri txar batian bazen famili'et goa'nik ùmiák ttikik zittuna, naiko ongi edo ongi samar bizi zena.

Eun bètián, attek esan ben'tzun:

-Biar joan bia'ut gue anaie bixitátziá eta norbattek etor'nai badu eskertuko nioke.

Mutiko gaztena boondate onèkoá men'tzen, naiz burugogor xamarra izan. Ta honek esan men'tzun:

-Atte, ni joain naiz zukin.

Ta hala, goàtziá joan eta lokartzen ez mutiko gaizoa biamònián attekin urruti joan biar zula-ta. Hala'ire, noizpatte loakartu zen eta goa'nik argittu gaí ziola, lozorroan ziola, atte loyelako atàrié joka.

-Jaiki'haí, goiz atia'biar'diaú. Euzkie àtiá orduko abiatu biàr'diú.

Mutikoa ao zabalka, loàliák akatzen, sukàldián attekin, ga'neko guzik lotan ziodelaik goa'nik.

Gosari koxkor bat in ta hara nola atiatzen deen, goa'nik euzkie hortzemugan atia-ez-atia ziòlaik.

Goiz hartan goa'nik hotz omen zion eta jèrtsiá eta txaketa jantzita àtiá men'tzeen.

Kilometro'atzuk in orduko eguèldié epeldu ta jèrtsiá ta txaketa kendu zittuten. Aúrria ta àurria eta euzkik osor gogor jotzen hasi zen eta mutikoá atten atzetik, hamar bat metro atzetik, galbantzen hàsié.

Hala zoazilaik attek perra bat ikusi men'tzun bidián, eta semèaí esan men'tzióñ:

-Hi, hor, lùrrián perra! Har'tzak perra hoi eta gorde zak.

Sèmiák ikusi bai, biño kasu'ik ez, aurria bere pauso geldoan.

Attek begi ertzakin ikusi ez zula kàsu'ik in-ta, àtziá in ta perra hartu eta pòltsiá.

Joan eta joan eta allaixten ez, eta galbantzen ezeze nekatzen'e ai omen zen sèmiá.

Hala, bide'èrtzián, emakume haar bat ikusi omen zuten, gerezik saltzen ai zena, saski haundi xamar batekin.

Atte geldittu ta gerezik eosi perran truke ta boltsa bàtián sartu men'zittun. Eta àurriá ta àurriá hitzik esan'gai. Sèmiá, puz-puz, atzetik despistàtu'ik noiz allatxiko ziren osaban itxá. Biño goa'nik asko falta omen zitzaien.

Pausoa moteltzen, izugarri moteltzen orduko, biño àurriá in biar. Atte làsaí àntzián eta gerezi jaten hasi omen zen sèmiá dius esan'gai. Bat aora eta bèstiá lùrriá, bat aora eta bèstiá lùrriá, gerezik nai'gai galduko balittu bezala.

Sèmiá, hore ikusik, atte gerezik jaten ai zela eta bakarren batzuk galtzen zitzaizkiola, atzetik banan-banan biltzen hasi men'tzen, gerezi bakòtxián martu biar ala-fedé; eta jaten hasi men'tzen, ixil-ixilik, atten jokaera hartaz harritu'ik edo. Atten ixiltasune zitzaion harrigarrina gaña.

Noizpatté, osaban hèrrié ikusi men'tzuten eta sartu biño lènaú atte





Gereziondoa, gereziz bete-betea, ia-ia mukuru ▲

gelditu eta sèmiaí espiatu mentzion eta honela esan omen'tzion:

-Hi, seme, perra hàrtzián ez makurtziátík, gio hemen etorri yaiz, bein eta beis makurtus. Ikas'zak aurretik lan ittiák zenbat balio dun. Hobe duk lana ez gaitzèstia Mundu hontan bizi nai baduk!

Eta hala sartu men'tzeen osabaren herrire aitte kontent biño kontentago eta sèmiaí buru makur, biño lèkzioá ikasi-te.

Eta nik diot, ez al zaigu komeni dakitenei entzutea, ikastea eta jarraitzea? Eta jakin ere jakin beharko genuke esaera zaharrak dioena: "jakinda ez dela inor jaiotzen" Edo "gazteak baleki eta zaharrak baleza"; esaldi politak eta egia nabarmenak gainera, biak ere! Orain, berriz, etxe askotan umeak dute agintzen. Ez dakienak dakienari erakusten alajainkoa! Mundua aldrebes.

Eta gure etxean zer gertatzen da?



Txurdan

OHARRA

Azentu batzuk jarri ditut, goranzko diptongoak nola diren eta ikasteko. Hemen hala ibiltzen baititugu. Eta beste azenturen batzuk ere, inportanteak iruditzen zaizkidanak, sartu ditut.

OHARRA 1: Imotzen hitz egiten dugun moduan dago, hitzen bat ezik. Kontrakzioak nola egiten ditugun ikus dezakezu. Eta azentuak nola jartzen digun ere ikasiko duzu. Hitz asko azentuatu ditut, batez ere bi azentu dituztenak: azentu biguna eta azentu gogorra dute hitz batzuk, ez daizaten erdaraz bezala.

OHARRA 2: Kontaketan, askotan **omen** hitza horrela jartzen dugu: etor'mentzen, etor'bentzen eta baita oso-osorik ere, etorri **omen** zen. Jende guziek ez dute berdin ibiltzen eta kontakerak ere batzuetan **OMEN** osorik esatea bultzatzen digu.

Hiztegia

Joan bia'ut=joan behar dut.

Etor'nai badu= Etorri nahi badu

Goàtziá: Bi golpetan esaten dugu: goa-tzia. `azentu ahula eta ´azentu gogorra. Beste hitzetan ere goranzko diptongoa dutenetan horrela ibili dugu. Gainerako hitzetan ere berdin.

Gai=gabe

Logela=kuartoa

Diaú: golpe batez esaten dugu.

Sukàldián: Hiru golpez: Su-kal-dian, indarra azkenean jarritz.

Jértsiá: Bi golpez, Jér-tsiá

Perra: herradura

Geldoa: Indarrrik gabea, gogorik gabea.

Allatxi: Allegatu. Bitxi samarra egiten zait ibiltzen dugun aditz hau. Ez dakit Etxalekuz aparte ibiltzen denik.

Galbana harpatu: bero handiarekin eta, gogorik gabe gelditzea. **Zakur nabarra harpatu** ere esaten zaio.

Ertzea: bazterra. Hemen ere ibiltzen dute zaharrek hitz hori.

Puz-puz: norbaiten atzetik deus pentsatu gabe joatea, automatikoa sartua balu bezala.

Làsaí àntzián: lasai antzean, lasai bezalatsu edo.

Hore: hura

Ala fede!: Alajainkoa!

Noizpatté!: Noizbait ere!

Gaña: gainera

Lan ittiák: lan egiteak. **Egin** ia toki guzietan **in** edo **ein** esaten da.

“Errespetua da niretzako errugbiak duen balorerik garrantzitsuenetarikoa”

Maika Iraizoz eltzaburuarra 15 urte daramatza errugbian, bizitza erdia. Azken hiru urteak, gainera, La Unica taldeko burua izan da. Orain beste ultzamar bati emanen dio lekukotza, Ixiar Braco lizasoarra izanen baita denboraldi honetan taldeko burua. Iraizotzi egin diogu elkarrizketa.

Nola bihurtu zinen taldeko burua?

Emakumezko errugbian, beste kiroletan eta taldeko bestesekzioetan ez beste, jokalariek hautatzen dute taldeko burua. Azken finean jokalariai ordetkatzen ditu. Ni egiten dudana guztietan asko

Nolakoa izan da esperientzia?

Oso ona. Gutxi eginda ere guztiek oso ongi erantzun dute. Adibidez, errugbian arauetako bat da zelaian arbitroari taldeko buruak bakarrik hitz egin diezaiokeela. Ez gainontzeko jokalariek ez entrenadoreak ezin diote hitz egin. Edozein jokalarik kexarik badu buruari esan behar dio eta buruak esango dio arbitroari. Errespetua ahalik eta gehien mantentzeko egiten da. Errespetu hori da niretzako errugbiak duen balorerik garrantzitsuenetarikoa. Eta horren parte izatea eta gainontzeko jokalariei hori irakastea oso aberasgarria izan da.

Zer gehiago transmititu nahi izan duzu?

Errespetua zentzu guztietan. Nik beti barkamena eskatu dut, lurretik altxatzen laguntzen ditut aurkariak, ez dut nahi gure artean gaizkihitzegitea. Taldeko jokalarien artean beti animoak ematen ditut. Bestetik, konpromisoa. Nire ustez, hori ere oso garrantzitsua da. Puntualitatea, entrenatzera joatea, partida guztietan egotea. Hain zuzen ere, erreleboa pasatzeko arrazoietako bat da lanarengatik ezin dudala ehuneko konpromiso hori izan.

Ixiarri zer esango zenion?

Ixiarrek eskola ona izan du, jokalariai beterranoekin jokatzeko zortea izan

“
Gauza guztietan
asko inplikatzeko
naiz
”

du eta nik haiengandik ikasitako balore berdinak ikasi ditu. Oso ongi egiten du. Gainera, Ixiar nire ustez, berari ere esan izan diot, errugbi jokalaria da esanahi guztiarekin, eredugarria da nola gutxika-gutxika, inurri bat bezala, aurrera joan den. Gero, berak bere erara lan egiten du. Ez du behar inongo gomendiorik. Berak ere badaki nik lekukotza berak hartzea nahi nuela.

Zergatik hasi zinen errugbian?

Probatzera joan nintzen. Entrenamendu oso gogorra izan zen, kamioi gurrupilak altxatu behar genituen, euria egiten zuen, gainera aurretik galdu berri zuten eta entrenadorea haserre zegoen, ... baina ez dakit zer izan zen, giroa edo, nahiz eta sekulako jipoia hartu guztiak irribarre batekin baitzeuden, eta engantxatu ninduen. Entrenamendu horren ondoren harrituta gelditu ziren itzuli nintzela, haiek esan zuten “honen ondoren itzultzen bada, betirako geldituko da” eta horrela izan da.

inplikatzeko naiz. Eta ez bakarrik zelaian, bazkari bat antolatuko behar dela, eta horrelakoetan ere bai. Horregatik bozkatu eta ni ateratu nintzen buru. Aurten aldaketa behar nuen, nahikoa eman dut eta taldea beste modu batera laguntzea behar nuen.



ekoaholkuak

“Otorduetan garbitasunez”

Etxe batean sartu eta sukaldeko mahaian paperezko musuzapiak ikusi nituen lehenengo aldian, arreta deitu zidan. Gonbidatuak etortzen zirenerako ote zituzten musuzapiak mahai gainean? Segituan ohartu nintzen, ordea, etxe koentzat zirela, otordu guztietarako zeudela hor. Behar izanez gero bat, bi edo gehiago lasai ederrean erabiltzeko, garbitasunaren onerako, noski. Zelako marka!!

Pixkanaka edo ziztu bizian agian, barneratu dugun bizi erritmoa bezalakoa, “ohitura” hau geroz eta sukalde gehiagotan sartu dela ikusi dut. Zergatik ote? Erosotasuna? Garbitasuna?... Galdera hauek desmitifikazioaz hausnartzeko beharra eragiten didate eta bide

batez, zuek ere gonbidatzen zaituztet hilabete honetan gaiaren inguruan pentsatzeko beta hartzera.

- Erosotasuna erosi daitekeen zerbait bihurtu dela dirudi, dendetako apalategietan eros daitekeena sos gutxi batzuen truke. Egia izanen da gauza batzuek bizimodua errazten digutela baina aspaldi ohartua naiz sinplifikatzeak eta beharrezkoak ez ditudan gauzak ez pilatzea ere erosotasuna direla. Sukaldean izan ohi dugun erosketa zerrenda zenbat eta motzagoa izan, orduan eta erosoagoa gurdia betetzea (karga, maiztasun edota aurrekontu txikiagoa, besteak beste) eta orduan eta txikiagoa gure zakar poltsa.

- Garbiagoak ote dira paperezko musuzapiak erabiltzen dituzten etxeetan? Garbigailua gutxiago erabiltzea zakar poltsaren mesedetan, gure etxea, antzinako grezian “oikos” deitutakoa, zein den birpentsatu beharko genuke. Gure bizitza asetzeko beharrak (elikadura, maitasuna, sozializazioa, ziurtasuna, beroa...) gure teilatupean soilik ase ezin ditugun bezala, “gure etxea” teilatupetik kanpo ere badela ulertu beharra dugu. Gainerako gizaki zein izakiekin partekatzen dugun etxe erraldoi baina mugatua aintzat hartuta, Ama Lurra, alegia. Horrela izanik, nola mantendu garbi guztion etxea paperezko musuzapiekin?

Nik ez dut inolako zalantzarik nire hautua zein den erabakitzeke eta aspaldi, nire etxe txikitik kanpo etxe handira joaten naizenean otorduren bat egitera (laneko hamaiketakoa izan, egun pasa izan, oporrak,...) nire oihalezko musuzapia eramaten dut. Etxe handi horretan elkarrekin bizi gara, bidea elkarrekin egitera batu nahi al duzu? Atea zabalik dago.

 **Lurra**



▲ musuzapia

Eskolak eredu, izurriteak hozkailu

Oihanzabalen duela hamarkada bat gutxienez oihalezko musuzapia erabiltzen dute, Amaia Legarra Ttikiena haur eskolako zuzendariak azaltzen digunez: “bakoitzak etxetik eramandakoa, eta ostiraletan etxera ekartzen zuten garbitzera. Gu eskolara joaten ginenean ere

horrela zen. Orain, pandemia hasi zenetik ezin dute eramanez, papera ibiltzen dute”. Ttikienan ere, esaten digunez, bakoitzak bere mantala eramanez du eta egunero eskolan garbitzen dute. Baina, izurriteak eragina izan du honetan ere: “eskuak garbitzeko eskuoihala

ibiltzen genuen eta orain beti papera, horrela dago araututa”.

Dakigunez, Larraintzarren ere lortu zuten oihalezko musuzapiak erabiltzea, baina izurriteak papera ekarri du, berriz ere. Ea laister berreskuratu dezaketen neurri ekologiko hori.



Liburutegira heldu diren azken nobedadeak

Aspaldian ez ditugu komentatu kolaborazio honetan liburutegira heldu diren azken liburuak. Gaur, labetik atera berriak diren liburuen hautaketa hau egin dugu. Goxo goxoak daude!

Ez dakit zertaz ari zaren Ana Malagon Eleberria. Euskaraz

Bere asperdura eta nazka guraso dibortziatu baten etxetik bestearenera garraiatzen dituen nerabea; aita enpresaria hil ondoren beren erdipurdikeriarekin zer egin ez dakiten seme-alabak; ahizpa atxilotu dutela-eta, haren kargu egitera doan klausurako moja; gaueko txanda baten ondoren, ama zaharra sarturik daukan erresidentziara doan autobus-gidaria? Pertsonen inguru

hurbilean kokatzen ditu egileak tragedia izatera iristen ez diren drama txiki hauek, ironia erabiliz urrutze modura eta garraztasuna defentsarako babes gisa. Trikuaren arantza horien azpian, baina, giza haragia suma daiteke dardarka, gozotasun apur baten eske. Gaurko eta hemengo gizartearen ispilu baldin bada ipuin-bilduma hau, ezin esan oso eder agerrarazten gaituela.



Taxiak ez dira inoiz gelditzen Xabier Montoia Ipuinak. Euskaraz

Zenbateraino markatzen dituen halabeharrak gure bizitzak. Horixe Xabier Montoiaren ipuin liburu berria gurutzatzen duten galderetako bat. Gaztetxo bat lehen aldiz maiteminduko da, izeba-osaben etxean ama noiz etorriko zain dagoela; harriek sufritzen ote duten galdetuko dio bere buruari Geologia ikasle batek ezbehar baten ostean; barruko zaratari aurre egin nahi dion emakume batek eguzkia gurtzen duen komunitate batean bilatuko du bakea; harreman gatazkatsua hasiko du dealer batek kirurgia estetikoaren erregina batekin; lagun talde batek mendeku hartu nahiko du jasandakoagatik, baina ondorioek gainezka egingo diete... Bi ahots irakurriko ditugu liburu honetan: hainbat kolpe bizi

izan dituzten bi emakume dira, behin baino gehiagotan zerotik hasi behar izan dutenak, aukera hobe baten bila. Baina taxiak ez dira inoiz gelditzen, are gutxiago galtzen ere traketsak direnentsat. Eta geldituz gero ere, batek daki zer ekarriko du t e n berekin.



Sortaldekoak Hedoi Etxarte Olerkia. Euskaraz

Landak eta Marxen burua, makilak eta Iruñeko Gaztelu Plaza, ZIUa eta Louise Michel, 1998ko Gabonak Lisboan, Dragoien batailoia Intxortan. Liburutegiak konpartitzen dituztenak, greba orokorreko egunetatik ahots apurtuekin itzultzen direnak, depilatu gabe sexuaz gozatzen dutenak. Gerra Hotza eta Zizur Nagusia, Ford Escort Nomade gorri purpura eta Audi A4 zuria. Egunerokoaren detaileari erreparatzen dio Hedoi Etxarteren hirugarren poema liburuak.

Liburuaren aurkezpenari laguntzeko prestatu dira abesti eta bideo batzuk, hainbat artisten kolaborazioekin, hala nola Moises No Duerme, Ion celestino, Amaia Espinosa... (Hemen ikus daiteke lehengoa: "Zerua eta sua":






Bekatorosak Dom Kapistron

Komikia. Euskaraz

Dom Campistron, liburu grafiko honen sortzailea, Alduden bizi da (Nafarroa Beherea) eta 26 urte ditu. 2019ko udan Nafarroa Behereko hainbat herri txikitako zazpi lagun elkarriketatu zituen, zazpi bekatorosa. Eta ondoren, paperera ekarri ditu haien borrokak, bakartasunaren mina eta bizi izan dituzten eraso homofoboak, baita beren maitasun istorioak, elkartasun eta itxaropenak ere. Egileak zazpi lekukoak hitzak berresan ditu jatorrizko testigantzen bat-batekotasunari eta originaltasunari eutsiz.

"Bekatorosa naiz. Hala sortu nintzen", dio argitaratu berri duen liburuaren aurkezpen orrian. Hitzaz nahiz marrazkiz osatua, artistaren berezko hizkuntza grafikoak ematen dio liburuari arintasuna, erakargarritasuna eta gaztetasuna.



Haserrea Iñigo Astiz

Haur literatura. Euskaraz

Bi urtetik aurrerako haurrek euren emozioak ezagutzeko, kudeatzeko eta besteenak hobeto ulertzeko sortutako bilduma da Kuku!. Bilduman, helburu bera duten hainbat elementu daude, besteak beste, album ilustratuak, horma-irudiak edota emozioak lantzeko jokoak.

Iñigo Astizek eta Leire Salaberriak sortutako album ilustratuak haserrea du abiapuntu. Haserreak beldurrak uxatu eta mehatxuei aurre egiteko indarra ematen du. Baina arriskutsua ere izan daiteke. Mireiak inurriak gutxietsi eta bortizki zanpatu ditu. Baina inurriek ere, txikiak eta ia ikusezinak izanagatik, sufritzen dute, eta haserretzen dira.



 **Patxi Irurzun**
Ultzamako liburutxaina

Nobedade gehiago

Eleberriak

Besteen odola (Simone de Beauvoir)

Ni eta gu (Pako Aristi)

Zeruko belardiak (John Steinbeck)

Izarak (Goizane Aizpurua)

Euri zitalari esker (Itxaro Borda)

Urpean murgildu (Lidia Txukovskaia)

Ohian hitzean mundua (Ursula K. LeGuin)

Kontrarioa (Lander Garro)

Miss Marte (Manuel Jabois)

Autoficción (Juan Carlos Márquez)

Los desposeídos (Ursula K. LeGuin)

Komikia

Mariak 20 urte ditu (Maria y Miguel Gallardo)

Armadiloaren igarkizuna (Zerocalcare)

Haur literatura

Superpatata 3. Denboraren ataritxo (Artur Laperla)

Superpatata 4. Malezia maltxurraren mendekua

Xakea umeentzat (Murray Chandler)

Bat. Bullyngaren aurkako taldea (Alex Hallat)

DVD

Amaren intxaurrak (Pirritx, Porrotx eta MariMotots)

2021eko Iraila

2021eko Irailean gure alderdian izan diren jaiotzak eta heriotzak

Jaiotzak:

ODIETA Ziaurritz

Yassin Meziani, Abdelghani eta Naziharen semea, irailaren 29an sortua
Leuntzanean.

“ Zorionak gurasoei ”

ULTZAMA Iraizotz

Ibai Arraztoa Ezkurra, Iker eta Maiteren semea, irailaren 25ean sortua.



▲ Unax eta Jon. Zeinen pozik dauden Ibaiekin!

Ezkontzak:

IMOTZ Latasa

Eduardo Jaunarena Galartza, Latasako **Arotzenekoa** eta Maria Jose Cascon Maillo, Iruñekoa, irailaren 27an ezkondu ziren.

“ Zorionak ezkonberriei ”

Abuela Julia maitea.

Gure artean bizitako momentu goxo guztiak ez ditugu ahaztuko.

Bizitza luzea izan duzu gure artean.

Mila esker gure bizitzaren parte izateagatik. Mila esker erakutsitako guztiagatik, kontatutako istorio guztiengatik.

Agur esateko momentua iritsi zaigu.

Gure bihotzean eramanen zitugu beti.

Zure ilobak

Heriotzak:

ANUE Olague

Florencio Olague Agerre, **Eskixoneko** nagusi zaharra; irailaren 6an hil zen, 90 urtetan.

ODIETA Ostiz

Juan Jose Aznar Mur, **Zalba etxekoa (Iriarte)**; irailaren 30ean hil zen 94 urtetan.



▲ Florencio



▲ Juan Jose Aznar



▲ Julia Biurrarena

MANTENTZE - LANAK · INSTALAZIOAK · KONPONKETAK · ARGI PUBLIKOAK
PROYEKTUAK · AURREKONTUAK · BOLETINAK ETA ZIURTAGIRIAK

KARRIKOLAR
ELEKTRIZITATEA



629 31 53 32 · 722 766 835

LIZASO · karrikolaregoitz@gmail.com

**GOTELET-A
KENTZEA**

**FATXADAK
ZAHARBERRITZEA**

**IRAGAZGAITEA
(IMPERMEABILIZACIONES)**

DAVID ELIZONDO PINTURAK
DEKORAZIO ETA INDUSTRIA PINTURA

**KALITATEA
ETA
GARBITASUNA**

**AURREKONTUA
KONPROMEZURIK GABE**

678623866

ZIAURRITZ · argapin@hotmail.com



ESAN ERRAN IRRATIKO PROGRAMAZIOA

2021-2022 denboraldia

ordua	Astelehena	Ateartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	Larunbata	Igandea
07-08:30	NAIZ magazina	NAIZ magazina	NAIZ magazina	NAIZ magazina	NAIZ magazina		
08:30-10	Metropoli forala	Metropoli forala	Metropoli forala	Metropoli forala	Metropoli forala	Landaberri	Goiz Kronika Osasun etxea
10-11	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO kantuz	Amarauna	
11-13:30	Faktoria + Goizak gaur Albistegia	Faktoria + Goizak gaur Albistegia	Faktoria + Goizak gaur Albistegia	Faktoria + Goizak gaur Albistegia	Faktoria + Goizak gaur Albistegia		
13:30-14:30	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO kantuz	Goizak gaur + Kirol legea	
						Bertsoinka	BerriaFm Lur eta Murmur
14:30-15:00	Musika	Musika	Musika	Musika	Musika	Kera Deia (Zuzenean)	
15:00-16	Beste bat (Naiz irratia zuzenean)	Beste bat (Naiz irratia zuzenean)	Beste bat (Naiz irratia zuzenean)	Beste bat (Naiz irratia zuzenean)	ADI	Berandu-egi Hankak Lurrin	Soinugela
16-18	Zebrabidea	Zebrabidea	Zebrabidea	Zebrabidea	Zebrabidea	Hiru kortxea	
18-19	Musika	Musika	Musika	Musika	Musika		
19-20	Gelditu makinak (Zuzenean)	Kultur kuboa	Zuria Beltzez	Global musik	Revolutio- nary grooves	Gaur Egun	Lore Hostoak (Eitb Potkast)
20-21	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO kantuz		
21-22	Barruan gaude (Eitb Podcast)	Piperpolis (Zuzenean)	Nola aldatzen diren gauzak (Zuzenean)	Klak	Zarata Zarautz	Haus of Beats	Irratiko Fikzioa
22-23		Urratsa (Eitb Podcast)	Sateliteak (Zuzenean)	Reggae Fever (Zuzenean)			
	Musika				Musika		

ESAN ERRAN IRRATIA: Egun Ero magazina, Egun Ero Kantuz saio berezia eta Esan Erraneko musika

ARROSA SAREKO IRRATIAK: Naiz Irratia, Xorroxin, Bilbo Hiria Irratia, Hala Bedi, Txapa Irratia, Radiokultura, 97 Irratia eta Arraio Irratia

EUSKADI IRRATIA

EUSKALERRIA IRRATIA: Metropoli Forala

BESTEAK....: Booktegi.eus-eko irakurketak eta Berria.eus-eko Berria FM